

Hernaniko liburutegiak ' Saski-naski ' azoka martxan jarriko du bihar

Bazkideek merkatu txikian jarriko diren liburuak ikusi eta gustukoak etxera eraman ahalko ditu doan.

Hernani.

Hernaniko liburutegiak Saski-naski azoka martxan jarriko du bihar. Liburutegiko bazkideek datorren azaroaren 16ra arte bisitatu ahal izango dute bertan jarri den argitalpen merkatu txikia. Ekimen honekin, liburutegian egiten den hustuketaren ondorioz kendu dituzten liburuak erakusgai jarriko dira. Jendeak horiek ikusi eta gustuko dituenak hartu eta doan eraman ahal izango ditu.

Hilabete honetako kultur programak biltzen duen ekimen hau ez da bakarra izango, ordea. Urriaren 18tik 21era, Urretxa elkarteak mikologiaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu. Horien baitan argazki digital lehiaketa izango da.

Glu Glu Producciones taldearen eskutik, haurrentzako antzerkia ere prestatu du Kultura sailak larunbaterako. Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak izango da an-tzeztuko duten lana. Horrez gain, igande musikatuak jarraituko dute 21ean eta 28an eta Aurki eta Haizea dendetan egindako eskulanen erakusketa izango da 22etik 31ra. >A.H.